



BARREN

TOKIKOM

# Gaurko eta geroko duintasun eske



1080€ guxiareko Pentsioa

**Euskal pentsioen sistema publikoaren alde**

DUINTASUNA





Mondragon  
Unibertsitatea

**ATE IREKIAK**  
**UNIBERTSITATE GRADUAK**  
2020/2021 ikasturtea

# LEARNING FROM REALITY

## HEZKUNTZA

### • LEHEN HEZKUNTZA - HAUR HEZKUNTZA •

**ESKORIATZA OTSAILAK 8**

LARUNBATA 11:00

**BILBO (BBF) OTSAILAK 8**

LARUNBATA 11:00

**BILBO (BBF) APIRILAK 23**

OSTEGUNA 18:00

**ESKORIATZA APIRILAK 25**

LARUNBATA 11:00

## KOMUNIKAZIOA

### • IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA •

**ARETXABALETA OTSAILAK 8**

LARUNBATA 11:00

**BILBO (BBF) OTSAILAK 8**

LARUNBATA 11:00

**BILBO (BBF) APIRILAK 23**

OSTEGUNA 18:00

**ARETXABALETA APIRILAK 25**

LARUNBATA 11:00

## HUMANITATEAK

### • HUMANITATE DIGITAL GLOBALAK •

**BILBO (BBF) OTSAILAK 8**

LARUNBATA 11:00

**BILBO (BBF) APIRILAK 23**

OSTEGUNA 18:00

Etorriko zarela jakinarazi!

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

## Gehiago izan nahi dugu hobeto egiteko!

### Eman izena, Euskaraldiaren bigarren edizioa Elgoibarko entitate bati aurkezteko prest bazaude.

Aurkezle-sarean izena emateko:  elgoibar@euskaraldia.eus  943 741 626  643 499 169

*Aurkezle-sarean izena ematen duzuenok beharrezkoa den laguntza eta materiala izango duzue, eta jasoko duzue formazioa, aurkezpenak egiten hasi aurretik.*



DEÑE ZABALO, 49 urte



GORANE SALABERRIA, 34 urte

#### ◆ Zergatik eman duzu izena aurkezle-sarean?

Ekimena dagoeneko ezaguna bada ere aurtengo edizioak berrikuntza batzuk ekarriko ditu, eta horien berri emateko, ondo komunikatzeko. Inoizko jende gehien ziprztindu zuen ariketa izan zen eta orain badakigu zer den, hobeto ezagutzen ditugu rolak, badakigu zer ahalegin eskatuko digun, baina aurtengo edizioan harago joango da konpromisoa eta hori eza-gutzero emateko eman dut izena aurkezle-sarean.

#### ◆ Pentsatu al duzu zein erakunderi aurkeztuko diozun Euskaraldiaren bigarren edizioa?

Danobatgruppen aurkeztuko dut bigarren edizioko Euskaraldia. Lehenengoan ere hartu genuen parte eta dagoeneko ezagutzen dituzte *Ahobizi* eta *Belarriprest* rolak. Aurten berrikuntzak ezagutzera ematea izango da.

#### ◆ Nola bizi izan zenuen lehen edizioa?

*Ahobizi* rola aukeratu nuen, eta urduritasun puntu batekin bizi izan nuen hasieran, zer ekarriko zuenaren kezka, baina egunak aurrera joan ahala pozik eta ilusioz. Aurreiritziak aldatu eta norbere portaeren gaineko kontzientzia hartzeko balio izan zigula uste dut. Ohiturak aldatzen jarraitu behar dugu eta hori egunerokora ekartzen ahalegindu behar gara, ez geratzen Euskaraldian..

#### ◆ Zergatik eman duzu izena aurkezle-sarean?

Aurreko Euskaraldian ere laguntzeko gogoia izan nuen, eta horregatik hartu nuen parte ariketan. Aurtengoan beste pauso bat emango dut, eta talde eragileak eman duen aukera aprobetxatuko dut Euskaraldian laguntzeko. Aurkezle-sarean sartu naiz eta ariketa berriaren nondik norakoak azalduko dizkiet parte hartu nahi duten erakundeetako kideei. Berrikuntzak daude, eta ariketa ondo ulertzea garrantzitsua izango da.

#### ◆ Pentsatu al duzu zein erakunderi aurkeztuko diozun Euskaraldiaren bigarren edizioa?

Batez ere enpresetan aurkezteko beharra dago, beraz, enpresaren bat aukeratuko dut. Oraindik ez dakit zein enpresa izango den, baina seguruenik Rodisan egingo dut Euskaraldiaren aurkezpena.

#### ◆ Nola bizi izan zenuen lehen edizioa?

Oso polita izan zen Euskaraldiaren lehen edizioa. Nik *Belarriprest* rola aukeratu nuen eta jendeak txapa ikusten zidanean euskaraz hitz egiteko ahalegina egiten zuela konturatu nintzen. Uste baino jende gehiagok egin zidan berba euskaraz egun horietan.





ALEX SEGADE

Ikaslea

## Super Bowl

eta harritzen nau ikusteak nola lortu duten euren kirola dutena kanpoko herrialdeetan hainbeste zabaltea. Azken finean AEBetako produktu bat da, eta hemen Europan ditugun kirolekin alderatuz guztiz ezberdina da futbol amerikarra. Errugbia izan daiteke kirolik antzekoena. Hala ere, antzerotasunak minimoak dira.

Futbol amerikarrean jokua asko geldiarazten da, saskibaloian baino gehiago, eta hori kirola ezagutzen ez dutenez atsegarria izan daiteke. Etenaldi horiek, baina, zentzua dute kirol honetan jokalarien eta entrenatzailearen arteko komunikazioa ezinbestekoa delako. Edizio honetako orri guztiak bete ditzaket kirolaren arauak azaltzen. Ezin dudanez, noski, domekako partida ikus-

tera animatzen zaituztet.

Hori bai, zuzenean ikusteko, ahalegin txiki bat egin beharko duzue. Zoritarrez, Estatu Batuekin dugun ordu diferentziak Super Bowla gauez ikustera behartzen gaitu, gaueko hamabi eta erdietan. Hasieran oso galduta egongo zarete, baina behin jokoa ulertzen duzue, kirol oso taktikoa dela konturatuko zarete. Jokua dinamikara ohitzea besterik ez da.

Niri hori da gehien gustatzen zaidana, izugarri taktikoa dela eta baita frenetikoa ere. Jokaldi bakoitzaren tentsioa eta adrenalina segundu gutxitan kontzentratzen da. Adituek aurtengo partidako emaitza oso altua izatea espero dute jokatzen duten bi taldeak oso erasotzaileak direlako. Nire gomena, bereziki, Patrick Mahomes jokalaria arreta jartzea da.

gandean Super Bowl futbol amerikarreko finala da, aukera ezin hobea kirola ezagutzeko. Super Bowla Estatu Batuetatik dator eta bertan izugarriko audientzia izaten du urtero. Euskal Herrian, aldiz, ez da oso ezaguna. Ziur asko hain ospetsua den atsedendiko kontzertuagatik izango da hemen ezagunagoa partida.

Europan zehar harrera handiagoa du,

*“Ziur asko hain ospetsua den atsedendiko kontzertuagatik izango da gurean ezagunagoa Super Bowleko finala”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Legebiltzarreko Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edume Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
UROLA  
AUZOTZAREN  
BATZARRA

LAGUNTZAILEAK:

MENDIARO  
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► TXORTIRI

Kaixo, Txorti. Orain arte sekula ez, baiña gaur errietan egiteko idazten dizut, izan ere, zer dala eta juan zera horren azkar eta gazte? Ez dogu izan alkarri adio esateko astirik ere. Oindiokan ere siñistu ezinda nago zure juana betiko izango dala. Baiña honi ere bueltia eman bihar diogu, zuk halaxe nahiko zenduke eta.

Auzokuok gure gazte denboran zenbat juerga egin genduzen akordatzeko hutsak bihotza pozten diti, eta zu beti hantxe planak egiten: juango al gera halako tokittara erromerixara edo jaixetara? Juantorrixetan ere alai, trikitixiak edo rantxerek lagunduta. Honen berri edarki asko dakizu zeuk ere, Ana Mari, ezta?

Hamendik aurrera, zauden lekuan zaudela, astixa izango dozu (hor ere geldi ez zara egongo baiña) hamen behetuori begitzeko, eta geuk ere, sarri, izango zaittugu gure artian, dala bertso-afarixa, dala San Pedro eguna, dala Santumotz... Oroitzapenak izango doguz lagun!

Adiorik ez, Txorti

A.L.

### ► OHARRA

Elgoibarko Izarrako langile batzarrak urtarrilaren 30eko greba dealdiarekin bat egin du. Hori dela eta, eskuarteaz duzun alea ohikoa baino laburragoa da.

BARREN

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idatzkiak, pertsona eta erakundeetuzenduniko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datorren eskutitzik argitaratuko.

## I. URTEURRENA

### M. Esther Mugerza Idiakez

"Belaustegi"

2019ko urtarrilaren 27an hil zen, 60 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 1ean, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.



**Zure irribarre goxoa  
eta maitasuna  
betirako izango dira  
gure artean.**

Etxekoak



## Irigarritasun Plana eguneratu du Elgoibarko Udalak eta webgunean jarri du ikusgai



**E**lgoibarko Udalak 2008an ekin zion Irigarritasun Plana idazteari, eta 2014an plan horren eguneratzea sustatu zuen, epealdi horretan herrian egon ziren aldatuak. Planaren azken eguneratetik lau urte pasatu ondoren, eta lehen plana idatzi zenetik hamar urtera, Udalak Irigarritasun Plana berritzea erabaki zuen 2018an, Elgoibar gaur egun den moduan islatzeko. Hala, 17.500 euro (BEZa kanpo) bideratu ditu Udalak plan hau gauzatzeko. Ane Beitia Elgoibarko alkateak azaldu du lau urteko epean Elgoibarko espazio garrantzitsuenak irigarriak izatea dela plan honen helburua. Horren harira, Udala esparru honetan egiten ari den lana azpimarratu du alkateak, eta esan du mota guztietako proiektuak abiarazterako orduan irigarritasunaren gaia erabat barneratuta dutela, nahiz eta kasu batzuetan, ez den bideragarria, Bolatokiko parkeko kasuan bezala.

Hirigintza zinegotzi losu Arraizek planak jasotzen dituen lanetako bat nabarmendu du: Urazandin eskailera mekanikoen ordez igogailuak jartzea. Horrekin batera, King Kong zubiaren gainean egiten ari diren azterketak atal berezia dauka Irigarritasun Planaren barruan. "Plan honek jasotzen duen eta gaur egun aztertzen ari garen beste jardueretako bat King Kongeko zubiko obrak dira. Irigarritasuna hobetzeko eta Urazandi erdigunearekin lotzeko hainbat aukera aztertzen ari gara. Hala ere, har daitezkeen neurriek, beste erakunde batzuk egin beharko lituzketen txostenen oniritzia beharko lukete, Uraren Euskal Agentziarena adibidez", azaldu du Arraizek. Zazpi liburuki ezberdinetan banatu dute plana, eta bertan jasotzen dira esparru guzti horien analisia, diagnostikoa eta esku-hartze proposamenak. Plana [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) atarian ikus daiteke.

### Txankakuen zozketako hiru sari banatu gabe daude oraidik

Txankakua merkataritza Elkarteak 1.800 euro zozkatu zituen Gabonetan, hamar saritan banatuta, eta horietako hiruren jabeek agertu gabe jarraitzen dute oraindik. 100 euroko hiru sariren jabeak dira agertu ez direnak, honako zenbaki hauen jabeak: 76.735; 33.259, eta 72.510. Txartel sarituen jabeek otsailaren 7ra arteko epea dute txartelak aurkezteko.

### Egia aita-semeek irabazi dute Mendaroko mus txapelketa

Joan zen zapatuan jokatu zuten Mendaron Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa, eta Jose Ramon eta Eritz Egia aita-semeek izan ziren txapelkunak. Aitz Beltz tabernan jokatu zuten txapelketa, eta 11 bikotek hartu zuten parte. Horietatik, Egia aita semeek eta Joxe Idoeta eta Agustín Urbieta iritsi ziren finalera. Irabazleek, Aitz Beltz tabernan bi lagunentzako afaria irabazi zuten eta txapelkunordeek, aldiz, bi ardo botila. Bi bikoteak otsailaren 29an Seguran jokatu den Gipuzkoako finale-rako sailkatu dira.

Elgoibarko kanporaketa, berriz, bihar jokatu dute, Tantaka tabernan. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeagatik. Bikote irabazleak Tantaka tabernan lau lagunentzako afaria irabaziko du eta bigarrenak, bi lagunentzako. 16:00etan hasiko dute joko.

### Literatur saio musikatua izan dute Institutuan

Elgoibar BHIko bigarren Batxilergoko ikasleek literatur saio musikatua landu zuten astelehenean, Gotzon Barandiaran eta Rafa Rueda musikariek. Gure historiako garai desberdinetako poesiez eta kantez gozatzeko aukera izan zuten bertan.



## Igerileku berriari irisgarritasuna bermatzeko arrapala jartzeko dauden aukerak aztertzeko eskatu du EHBilduk

Olaizaga kiroldegiko igerilekuak handitzeko proiektua gertatzeko eskatu du Elgoibarko EH Bilduk, igerilekura sartzeko arrapala jartzearen proposamena nola gauzatu aztertu bitartean. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonen laguntzeko, igerileku berriari arrapala bat jartzea eskatu du EH Bilduk, Elgoibarko Udala lantzen ari den proiektuan irisgarritasuna bermatzeko elementu nahikorik ez dela jasotzen arazoituta. Era berean, kaltetutako herritarrekin biltzea eskatu dio Udalari, arazo horri irtenbidea emateko.

Hirigintza Sailak ez du eskaera begi onez ikusi, eta arrapalaren ordezkailera mugikor baten alde egin du. Hirigintza Saileko arduradun Iosu Arraizek EHBilduri gogorarazi dio igerileku berriaren proiektua aho batez onartu zutela udalbatzaren osoko bilkuran, eta bilkura hartan, Udalean ordezkari izan duten alderdi politiko guztiak zeudela ordezkariak, EHBildu barne. Horrekin batera, proiektuan arrapala egitea gehitzeak



obra atzeratzea ekarriko lukeela nabarmendu du, proiektua berridatzi eta beriz onartu beharko litzatekeelako osoko bilkuran, lanean hasi aurretik. Gainera, kontratuak mugak dituela esan du, eta behin esleituta ezin dela aldaketa handirik sartu proiektuan.

Nolanahi ere, esan du arrapala hori jartzeak igerilekuko kale bat kentzea eskatuko lukeela eta zortzi kaleko igerilekua beharrean zarpikoa izango litzatekeela.

Horregatik guztiagatik arrapalaren ordezkailera mugikor bat jartzearen alde agertu da. Eskailera hori beharrezkoa denean bakarrik erabili ahal izango lukete, kentzekoa izango litzatekeelako. Gorpildun aulkian dauden herritarrei zerbitzua emateko, garabia jartzeko aukera izango luke eskailera horrek. Arraizen ustez, arrapalak ez die irtenbiderik ematen gorpildun aulkian dauden herritarrei.

## Ikastolako ikasleek Eguneko Zentroa bisitatu dute



Belaunaldien arteko esperientzietan oinarritutako jarduera desberdinak egiten dituzte Eguneko Zentroan, Udalak eta ikastetxeek elkarlanean. Jarduera horien barruan, Elgoibar Ikastolako ikasleek Eguneko Zentroa bisitatu zuten joan zen astean. Zentroko terapiaren baitan, orientazioa lantzeko erabiltzen den murala egin zuten elkarrekin. Eguneko Zentroko arduradunek jakinarazi dutenez, elkar ezagutzeko aukera paregabea izan zen eta dantza pixka bat egiteko aukera ere izan zuten. Zentroko erabiltzaileek asko eskertu zuten bisita eta ikasleentzat ere ekintza "aberasgarria" izan zen. Esperientzia "oso positiboa" izan zela adierazi dute antolatzaileek.





Elgoibarko pentsiodunen mugimendukoek astelehenean Kalegoen plazan egin zuten bilkurako argazkia.

# Duintasunez bizitzeko, borrokan

**Bi urte beteko dira domekan Elgoibarren Gaur Geroa-Duintasuna sortu zutela. Jubilatutako eta pentsiodunen beharrei erantzuteko sortu zuten elkartea, eta bereziki, bi lan-lerro zehaztu zituzten: batetik, pentsioak eta bizi-kalitatea hobetzea, eta bestetik, mendekotasuna eta zaintzaren gaia lantzea. Gaur, bi urte geroago, tinko eusten diote eskakizunei, bai eta hamabostean behin egiten dituzten mobilizazioei ere, eta txosten batean batu dituzte borrokarako dituzten arrazoiak.**

- AINARA ARGOTIA -

Elgoibarko adinekoen egoeraren adierazgarri diren dozentzako datuak bildu ditu Gaur Geroa-Duintasunak urteurrenaren harira publiko egin duen txostenean. 65 urtetan jarri du adinekoen langa, eta bi datu nabarmendu ditu besteen gainetik: batetik, Elgoibarren, herritarren %22,16 direla 65 urtez gorakoak [populazioaren laurdena ia] eta horien erdiak baino gehiagok 75 urte edo gehiago dituztela, eta bestetik, adin tarte horretako 422 lagunek mendekotasunen bat dutela (65 urtez gorakoen %16k, alegia). Herriko eragile guztiak gazteak erakarri nahian ari diren sasoiaren, pertsona adindunetara zuzendu du argia Duintasunak. "Bada ordua adindunen beharrei erantzuteko", jaso dute. Zorionmezuak eta txaloak jaso dituzte mobilizatzeari ekin ziotenetik erakutsitako duintasun eta tinkotasunagatik, baina ez daude txalotarako, ez eta apurretarako ere. "Neurriak nahi ditugu, baliabideak, gure eskaerak gauza daitezten".

Adinaren piramide erregresiboa da Duintasunak mahaigaineratu duena. Espero zena, bide batez esanda, herrialde industrializatuen ezaugarria delako adinaren piramideetan erdiko zona oinarria baino zabalagoa izatea, baina deigarria hala ere, joera dena hain garbi erakustegatik. Jaiotze-tasa apaltzen ari da eta bizi-itxaropena luzatzen, eta horrek berariaz dakartza arazoak gaurko gure sistema honi eusteko. Batetik, osasungintzan asko aurreratu arren, uka ezina delako populazioa zahartzeaz batera gora egiten duela zaintzak behar dituzten kopuruak ere, eta mugimendu feministatik sarri ohartarazi duten bezala, zaintza behar horrek kolokan jartzen duela gaur egungo sistema soziala, pertsonen beharrei baino merkatuaren beharrei garrantzi handiagoa ematen dien sistema. Elgoibarko datuetan ere argi ikus daiteke hori: 0 eta 17 urte bitarteko 2.163 lagun bizi dira Elgoi-

barren (%19), 18 eta 64 urte bitarteko 6.853 (%59), eta 65 urtez gorako, 2.566 (%22). Populazioa zahartzeaz batera, mendekotasunen bat dutenen kopuruak ere gora egin du nabarmen, 2017tik 2018ra bitartean: 32 lagun gehiago. Bestetik, zahartze demografikoak pentsio-sistemen bideragarritasuna ere jar dezake kolokan, nahiz pentsioen inguruko eztabaida lotuagoa dagoen beharbada lan merkatuaren desorekekin, eta beraz, desoreka horiek zuzentzeko, enpleguaren egiturari begiratu beharko genitkeen gehiago, populazioaren piramideari baino. Horregatik jartzen dute pentsiodunen mugimendutik azpimarra prekarizazioan eta indarrean dagoen lan erreformak dakartzen murrizketetan. Eskatzen duten bezala, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izan dadin, gutxieneko soldatak 1.200 eurokoa izan behar baitu ezinbestean [Europako Gutun Sozialak ezartzen du gutxieneko pentsioek gutxieneko soldataren %90 izan behar dutela eta gutxieneko soldata herrialdeko bataz besteko soldataren %60 dela. Pentsiodunen mugimendukoak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 2016ko datu ofizialetan oinarritu dira kalkulua egiteko].

## Pentsioak

Gaur Geroa-Duintasunetik ohartarazi dute pentsiodunek urteak daramatzatela erosteko ahalmena galtzen eta etxe askotan senperrenak eta bi bizitzen ari direla. Eta, hemen ere, okerren daudenak, emakumeak dira. Emakumeen pentsioa gizonena baino %45 inguru txikiagoa da batez beste. Emakumeari ez zaio egiten duen lana aitortzen. Emakumeek hartzen dituzte baimenak etxe-koak eta ingurukoak zaintzeko, eta ondorioz, gutxiago kotizatzen dute, eta jakina, erretiroa hartu ostean, gutxiago kobratzen dute. "Etxetik kanpo lan egiten dutenek badute zerbaite, baina etxetik





kanpo lanik egin ez dutenak miserian bizi dira. Horientzat ere aldarrikatzen dugu gutxieneko pentsioa: duintasuna”, nabarmendu du Joseja Arregi Gaur Geroa-Duintasuneko bozeramaileetako batek. 2018ko abenduaren 31ko datuen arabera, Gipuzkoan 184.630 pentsiodun zeuden eta horietatik %59k 1.080 euroko pentsioa baino apalagoa zuten, eta %22k, 600 eurotik beherakoa. Gainerako %24ek alarguntza-pentsioa jasotzen zuten. Datu horiei generoaren aldagaia gehitzen badiegu, baina, argi ikusten da generoak eta pobrezia zein harreman estua duten: Gipuzkoan, pentsiodunen erdia baino zertxobait gehiago emakumeak dira (%52,44) eta 1.080 euroko pentsioa baino txikiagoa jasotzen dutenen artean %70,59 dira emakumeak. 600 euro baino pentsio apalagoa duten hamar lagunetik zortzi dira andrazkoak eta alarguntza-pentsioa jasotzen dutenetatik, hamarretik bederatzia. Gipuzkoako argazkia da hori, baina Gaur Geroa-Duintasunetik nabarmendu dute Elgoibarko datuak “antzekoak” direla. “Eta exajeratzera jota, jo dezagun %10 txikiagoa dela Elgoibarren 1.080 euroko pentsioa baino txikiagoa dutenak. Jo dezagun %49 direla. Zer da hori? Gutxi al da pentsiodunen erdia inguru pobrezia mugaren azpitik bizitzea?”, gehitu du Andoni Segundok.

Pobrezia feminizazio hori argi ikusten da, era berean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenen datuari erreparatu gero. Elgoibarren, 232 lagunek jasotzen dute oinarrizko behar pertsonal eta familiarrei aurre egiteko prestazio ekonomiko hori: 122 emakumek eta 110 gizonak. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenetatik 73 pentsiodunak dira (%24,5), eta horietatik 55 (%75) dira andrazkoak. “Prestazio osagarri hori gabe nekez bizi ahal izango liriteke pentsiodun horiek”, zehaztu du horren harira Arregik. Ondorioa argia da: “Laguntzen behar handiena duen kolektiboetako bat pentsiodunena da, eta talde horretan emakumeak dira egoera okerrean bizi direnak”. Horregatik eskatzen dute duintasuna pentsiodun guztientzat; horregatik eskatzen dute 1.080 euroko gutxieneko pentsioa guztientzat eta pentsioak betiko KPIra lotzea eta ez urtez urte aldatzea, egun indarrean dagoen pentsioen erreformak behartuta. Eta horregatik eskatzen dute baita ere jasangarritasun faktorea baztertzeko, erretiro adina gehiago atzeratu ez dadin eta pentsioak apalduz joan ez daitezela haiek kalkulatzeko tartek zabaltzearekin batera.

## Mendekotasuna

Mendekotasunaren inguruan bi datutan jarri dute azpimarrara Gaur-Geroa Duintasunekoek: Azken zazpi urtean Gipuzkoan ia 18.000 pertsonatan igo dela 65 urtez gorako multzoa (%12ko igoera), baina epe horretan Gipuzkoako Aldundiak ez duela ia plaza publiko berririk sortu adinekoentzako egoitzetan. “2012an, 5.379 plaza zeuden Gipuzkoan eta 2018an, 5.232. Guztira, 53 gehiago beraz. Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan dago eskaintzarik txikiena, eta estatuan batez bestekoaren azpitik dago Euskadi, CSIC Espainiako Ikerketa Zentroaren datuen arabera [<http://envejecimientoenred.es>], zehaztu du Arregik.

“Elgoibarrera etorrita, egoera are okerragoa da”. 48 plaza daude gaur San Lazaro egoitzan, eta 65 urtez gorakoak 2.655 direla aintzat hartuta, ratioa ehun pertsonako 1,87koa da [Debabarrean ratioa %3koa da, eta Gipuzkoan, %3,44koa]. “Horrek esan nahi du Gipuzkoako ratioarekin parekatzeko, Elgoibarren gutxienez 90 plaza eskaini beharko liritekeela, daudenak baino 42 gehiago”.

## Erronkak

Ondorioen atalean, pentsiodunekin eta nagusien arloan lan egiten duten elkarte eta kolektiboekin batzera deitu dute Udala, uste dutelako Ongizate Saileko langileek egiten duten lana “eredugarria” izanda ere, adinekoei eragiten dien gaian haiena izan behar dela aurrea aintzat hartu beharreko ahotsa. Horren harira jaso dute ondo legokeela pertsona adindunen arazoetan espezialdutako bulegoa sortzea herrian, eta baita adinekoen osasun arazoez arduratuko den geriatría-zerbitzua ematea ere. Gogoratu dute adineko asko mugikortasun arazoak dituztela, eta horregatik eskatu diote Udalarik Gizarte Segurantzako tramiteak Elgoibarren egin ahal izateko bidea errazteko edo horretarako bitartekoak jartzeko, bai eta nagusiei ofizios ematea dagozkien gizarte prestazioen edo hobarien berri. Azkenik, egoitzetan plazak falta direla gogorarazi dute, eta horren harira, Gaur Geroa-Duintasunak Santa Klarako komenturako egindako proposamena aztertzeke eskatu diote Udalarik.

## Datuak

### Pentsioak, Gipuzkoan.....

- ◆ Pentsiodunak guztira: 184.630 (%100). Gizonak:%47,56 / Emakumeak: %52,44
- ◆ 1.080 eurotik beherako pentsioak: 108.226 (%59). Gizonak: %29,41 / Emakumeak: %70,59
- ◆ 600 eurotik beheragoak: 40.228 (%22). Gizonak: %22,32 / Emakumeak: %77,68
- ◆ Alarguntza-pentsioak: 43.683 (%24). Gizonak: %6,46 / Emakumeak: %93,54
- ◆ Diru-sarrerak Bermatzeko errenta, Elgoibarren. Guztira: 232 dira. Horietatik 73 (%24,5) pentsiodunak dira, eta haietatik 55, emakumeak.

### Populazioaren zahartzea.....

- ◆ Elgoibartarren %22,16k 65 urte baino gehiago dituzte, eta horietatik %55ek 75 urte baino gehiago dituzte.
- ◆ 472 elgoibartarrek mendekotasunen bat dute.
- ◆ 101 elgoibartar daude zahar etxeetan edo eguneko zentroetan. San Lazaro egoitzan, 48 egoiliarrentzako lekua dago.



## ▶ ASUN URIARTE AMAIA MARTINEZ DE BUJO

GAUR GEROA-DUINTASUNAKO KIDEAK

Bi urte dira Elgoibarren jubilatuta eta pentsiodunen mobilizatzeari ekin ziotenetik eta bi urte hauetako balorazioa egin digute Asun Uriarte eta Amaia Martinez de Bujo Gaur Geroa-Duintasuneko kideek.



Asun Uriarte eta Amaia Martinez de Bujo.

“Mugimendua  
zaitu nahi dutenak  
ari dira  
zaituta gaudela  
zabaltzen”

### ◆ Zer balorazio egiten duzue azkeneko bi urte hauetaz?

Ona. Gauza batzuk lortu ditugu: 2018an pentsioak %0,25 baino gehiago igotzea lortu genuen, bai eta jasangarritasun faktorea atzeratzea ere. Era berean, lortu dugu gutxieneko pentsioak eta alarguntasun pentsioak hobetzea, eta baita SMI edo Espainiako lanbide arteko gutxieneko soldata 900 eurora igotzea ere. Hala ere, pentsio publiko duinak ez daude bermatuta. Gure aldarrikapenen taulako puntu nagusia ez da bete, eta ez gaude mobilizatzeari lagatzeko, lortu duguna protesten bidez lortu dugulako. Beraz, balorazioa ona da, lortu dugulako pentsioen gaia agenda politikoan sartzea. Era berean, arantza bat ere badaukagu: ez dugula lortu gazte jendea erakartzea. Jubilatuta eta pentsiodunak batzen gara, baina borroka hau ez da gurea bakarrik. Guri eragiten digu, bai, baina orain lortzen dena gehiago izango da ondoren zatozenontzako.

### ◆ Espainiako Gobernuak jakinarazi du pentsioak %0,9 igoko dituela aurten, eta aurtengo KPIa %0,9tik gorakoa bada, 2021eko apirilean pagatuko dutela alde. Zer duzue esateko?

Igoera denak dira onak, baina ez da nahikoa, hala ere. Hasteke pentsioak betiko KPIra lotzea nahi dugu eta ez urtez urte aldatzea. Gainera, pentsioak KPIra lotzeko eskaera gure eskakizunetako bat baino ez da. Sanchezek ez du ezer esan jasangarritasun faktorearen inguruan eta guk hori baztertzeko ere eskatzen dugu. Beste kontu horiek Toledoko Itunean erabaki beharko direla esan du. Bere ustez enpresariak eta sindikatuek ere zeresan handia dute pentsioen inguruan, eta horrek badakigu zer esan nahi duen. Kea saltzea da.

### ◆ Pentsiodunen mugimenduan askotariko jendea zaudetela diozue zuek, baina badago bestera pentsatzen duenik ere. Zer diozue?

Mugimendua zaitu nahi dutenak ari dira zaituta gaudela zabaltzen, baina ez da egia. Guk beti diogu hemen batzen gaituzten oinarritzko aldarri batzuk badaudela, eta batasun hori, gainera, ezinbestekoa dela zerbait lortuko badugu. Pluraltasun hori badago Elgoibarko pentsiodunen mugimenduan, eta oso argi dugu horri eutsi behar diogula. Pentsiodun guztien interesen alde ari gara gu, eta berdina zaigu zeinek agintzen duen.

### ◆ Pentsiodun denek ez zuten atzo greba babestu. Horientzat Madrilek du auzi honetan giltza. Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakariak ere horixe nabarmendu du: Jaurlaritzak ez duela gai honetan eskuduntzarik.

Bai, baina ez da egi osoa. Egia da Madrilen hartzen dituztela pentsioen inguruko erabaki asko, baina aldi berean, Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ere bai-baditu eskuduntzak pentsioak osatzeko eta zerbitzu publiko duinak gartzeko. Borondate politikoa falta da hemen, eta garbi laga nahi dugu hori.

### ◆ Zein da Elgoibarko pentsiodunen argazkia? Zein beharri buruz aritzen zarete zuen batzarretan?

Guk ez daukagu argazki osoa erakusteko. Pentsiodunen mugimenduaren barruan alde handia dago gizonen eta emakumeen artean, eta badakigu okerren daudenengana nekez iritsiko garela, asko ez direlako kalera irteten ere egiten, eta beste askok lotsa halako bat sentitzen dutelako zein egoeratan dauden kontatzeko. Gizon gehiago batzen dira bai batzarretan zein kalean, baina okerren daudenak emakumeak dira, alargunak eta etxetik kanpora lan egin ez dutenak. Ez dugu ahaztu behar pentsiodunen artean genero arrakala are handiagoa dela, eta badakigu gure herrian ere gorriak ikusten daudela emakume pentsiodun asko. Oraindik badago, baina, lotsa-sentimendu hori, emakume askori oso pisua zaiena eta lehenbailehen kendu beharko genukeena. Baina bai, oso pentsio baxua duten emakumeak daukagu, seme-alaben edo ingurukoengana guntzari esker bizi direnak. Haien zatia eta beste zatia eskatzen dugu guk duintasuna; denentzat.



## Markel Bergarak futbola laga du belauneko lesioek behartuta

**M**arkel Bergarak (Elgoibar, 1986), Getafe taldeko futbol jokalaririk elgoibartarrak, futbola lagatzea erabaki du. Erdilari elgoibartarra 33 urterekin erretiratu da eliteko kirolari, belauneko lesioek behartuta. Erretiroaren arrazoiak eman ostean, futbol ibilbidean jokatu duen talde guztiak gogora ekarri zituen Bergarak joan zen astean Getafe C.F. taldeak sare sozialetan zabaldu zuen bideoan. Aipamen berezia egin zion C.D. Elgoibarri, herriko taldeari, bai eta Vecindario eta Eibar taldeei ere, zeinean bi urte "zail" pasa zituen, "heldutasun handia hartzeko" balio izan ziotenak. Denen gainetik, baina, Realak aipatu zuen. "Nire bizitzako kluba izan da, bertan hezi bainintzen profesionalki zein pertsona moduan. Han neureganatu nituen futbolari eta pertsona ororentzat funtsezkoak diren baloreak". Azkeneko taldea izan duen Getaferen izena ere "letra larriz" nabarmendu zuen. "Une oso gogorak bizi izan ditut, baina uneoro babes handia sumatu dut, bai kirol taldearena eta baita zaleena ere". Bergarak esan zuen "pribilegiatua" sentitzen dela bidean ezagutu duen jende guztiagatik. Futbolariak, entrenatzaileak,



kirol zuzendariak, taldeetako medikuak, teknikoak, presidenteak... aipatu zituen. "Horien guztien aitortza, babesa eta maitasuna sentitu dut, eta futbol ibilbidetik nirekin eramango dudak gauzarik garrantzitsuenak da hori". Bukatzeko, eskerrik eman zizkien une zailetan alboan izan dituen lagun guztiak: "Nire gurasoak, arreba, familia, lagunak, eta bereziki emaztea. Guzti horiek gabe honek ez luke izan duen zentzua izango, eta izatea bera ere ezinezkoa zatekeen. Eskerrik asko eta besarkada handi bat". Realak ere zabaldu zuen esker on

mezua. "Zutaz harro. Zu bezalako pertsonak osatzen dute Realak. Eskerrik asko, Markel!" idatzi zuten sare sozialetan. Markel Bergarak 2007-08 denboraldian egin zuen debuta Realarekin, aurretik C.D. Elgoibarren, Sansen, Eibarren eta Vecindarioan jokatu ostean. Geroztik, hamar denboraldiz jantzi zuen elastiko txuri-urdina, eta guztira 212 partida jokatu zituen Realarekin, 2017ko uztailan Getaferara joan zen arte. Azken hiru denboraldiak egin ditu Madrilgo taldean, baina lesioen eraginez ezin izan du normaltasunez entrenatu eta jokatu.



EHUko Geodinamika Saileko kide diren Iñaki Antiguadarek eta Ane Zabalek emango duten hitzaldiarekin hasiko dira, otsailaren 5ean, Morkaikoren natura eta zientzia jardunaldiak. *Klima-aldaketa, uraren ikuspegitik* izen-

### Klima-aldaketa, uraren ikuspegitik

buruko hitzaldia emango dute, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan (19:30). Hizlariak aurreratu dutenez, asko berba egiten da klimaren-aldaketaz hedabideetan, baina gehienetan tenperaturaren igorarekin (beroketa globala) lotzen da aldaketa, gerora begira prezipitazioetan izan daitezkeen gorabeherak bazter batean lagata. Horrexegatik da garrantzitsua klima-aldaketa urarekin ere lotzea, ura ezinbesteko gaia delako, bizimoduaren baldintzatzailea. "Noiz behinka hidrologoek egiten zaigun galdera hau da: zer-nolako emariak izango dira gure erreketan, edo iturrietan, mende honen erdian, kasurako?"

Zelako joerak aurreikusten dira ur kontuetan? Normalean galdetzen ez zaiguna zera da: Zer gertatu da gure erreketan azkeneko hamarkadetan? Izan ere, gertatu dena hortxe dago, jasotako emari-datuetan, gertatzeko datu goena, ordea, zalantzarikoa da, oso beraz, egon badago alde!". Hitzaldian saiatuko dira bi galderak erantzuten: nondik gatozen, segurua dena, eta nora goazen, dudazkoa. Eta agerian utziko dute gerora begira ur-sistematan izan daitezkeen aldaketak ez direla klimaren aldaketatik bakarrik etorriko, baizik eta baita lurraldearen antolamendutik ere.

## Etxegina taldekoak bihar irtengo dira santa eskean, Elgoibarko Izarraoak martitzenean eta Mendaron, hilaren 8an

**E**txegina taldeko kideak bihar irtengo dira Elgoibarko kale eta auzoetan santa eskean. 8:45ean batuko dira Bolatokiko parkean taldeko argazkia ateratzeko, eta 9:00etan hasiko dira kantuan, bi taldetan banatuta. Goizaren lehenengo partean talde bakoitzak bere aldetik jardungo du kantuan, eta hamaitakoa egin ostean, San Lazaro egoitzan abesteko bat egingo dute. Handik irtendakoan herrigunean sartuko dira, talde guztia batera. Amaieran, Errosario kaleko Ama Birjinaren aurrean salbea kantatuko dute. Iaz bezala, Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleek ere hartuko dute parte kalejiran, eta eurek idatzitako koplak kantatuko dituzte.

Martitzenean, berriz, Santa Ageda



bezpera egunean, Elgoibarko Izarrao ki-deak irtengo dira baserri baserri, kantuan eta eskean. 14:30ean batuko dira Kalegoen plazan, eta bi taldetan banatuta koplak dituzte Elgoibarko baserri auzoak. Jarduna amaitzeko, Aiastiako elkartean afalduko dute.

Ikastetxeetan ere ospatuko dute Santa Ageda Eguna. Elgoibar Ikastolako haurrak

eta Mendaroko ikastolakoak, esaterako, kalejiran irtengo dira hilaren 4an, ateri eginez gero. Bestela, jolastokira mugatuko dute jaia. Herri Eskolako umeez ere ospatuko dute santa eskea, baina kalera jaitsi gabe.

Mendaron, berriz, hilaren 8an irtengo dira santa eskean. 8:30ean batuko dira Herriko Enparantzan.

### Tertuliak programarako bidelagun bat behar du Elgoibarko Izarrak




Tertuliak programako talde bat dinamizatzeaz arduratuko den bidelagun bat behar du Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak. Astean behin ordubetez tertulian jarduten duten lauzpabost laguneko taldea dinamizatzea eta gidatzea da bidelagunaren zeregina. Interesatuak urtarrilaren 31 baino lehen jakinarazi behar dute, Elgoibarko Izarran zein herriko euskaltegietan, honako bideetatik: Elgoibarko Izarra: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) / 942 741 626, AEK euskaltegia: [elgoibar@aek.eus](mailto:elgoibar@aek.eus) / 607 601 423 edo Udal Euskaltegia: [elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net](mailto:elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net) / 943 742 731. Elgoibarko Izarrak 2001ean jarri zuen martxan Tertuliak programa, euskaraz berba egiteko zailtasunak zituztenei laguntzeko. Urrian hasi eta ekainean bukatzen da, eta tarte horretan, astean behin elkartzen dira bidelagunak eta bidelariak, taldeka, ordubetez euskaraz egiteko. Gaur, sei talde daude, eta guztira, 44 lagunek parte hartzen dute: sei bidelagunek eta 39 bidelarik.

### Deba ibarreko kanta eta jolasen bilduma banatuko du Udalak ikastetxeetan

Badihardugu elkartearen Ahotsak ikasgelan proiektuaren barruan, *Jira bueltan* izeneko liburuxka eta DVDa argitaratu zituen 2018an Elgoibarko Udalak, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Eibarko Udalekin elkarlanean. Lau herrietako bederatzita ikastetxetako 300 haur baino gehiagok hartu zuten parte egitasmo honetan. Elgoibarko kasuan Herri Eskolako eta Ikastolako haurrek hartu zuten parte. Guztira, 30 kanta-jolas, 14 jolas eta 7 abesti jaso zituzten. Adineko 60 lekuko baino gehiagoren testigantzetan oinarritutako kantak eta jolasak dira guztiak, eta gehienak Debarrokoak. Ikasturte honetan, ikastetxeetan banatuko du *Jira Bueltan* liburuxka-DVDa Elgoibarko Udalak, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan, hain zuzen.



## Elgoibar Ikastola STEAMsare programan parte hartzen ari da



Elusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak sustatutako STEAMsare (*Science, Technology, Engineering, Arts eta Mathematics* hitzen ingelesezko akronimoa) programarekin bat egin du Elgoibar Ikastolak. 37 ikastetxe eta 21 eragile sozioekonomiko batzen ditu programa honek, eta ikastetxe, enpresa eta eragile zientifiko-teknologikoen sare bat sortzeko helburuarekin jaio da. Programa honen bidez, ikastolek, enpresek eta eragile zientifiko-teknologikoe elkarrekin lan egingo dute urtean zehar. Elgoibar Ikastola Innobasquerekin (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) eta IMH Makina-Erremintaren Institutuarekin batera arituko da elkarlanean. Horrez gain, STEAMsaren parte hartuko duten arlo industrialeko 21 enpresen artetik, Alcorta, AVS, eta Pixel Sistemas enpresak arituko dira Elgoibar Ikastolarekin elkarlanean. Era berean, Hezkuntza-curriculum a aberasteko hainbat jarduera garatuko dira programa honen barruan, eta, enpleguaren lan-errealitatea, profil profesionalen aniztasuna eta euskal industria-ehunaren aberastasuna erakutsiko dira, enpresetara egindako bisiten, erronka teknologikoei buruzko tailerren edo espezialistekin egindako bileren bidez.

Programa honekin zientziaren eta teknologiaren irakaskuntza motibatzaileago eta praktikoago baten alde egiten da, benetako lan-testuinguruetan garatuko dena. Horrela, ikasleen gaitasun zientifikoak eta teknologikoak hobetzen lagundu nahi du Hezkuntza Sailak, eta eremu horretako bokazioak piztu, tokiko talentuaren garapena sustatuz. Azken batean, talentua orientatzeko eta prestatzeko prozesuak lehentasuneko lan-ildo gisa hartzen dira programa honen baitan, adin goiztiarretan hasita.

## Elgoibarko idazlan lehiaketa martxan da

Elgoibarko ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko asmoz, idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko sailen birtartez. Elgoibarko ikastetxeetan ikasten dabilzan 8 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat, edota Elgoibarren erroldatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertainetan dabilzan adin berekoentzako lehiaketa da. Gaia librea izango da, baina testuak euskaraz idatzitakoa izan behar du derri gorrez, orijinala, aurrez saritu gabea eta argitaratu gabea. Parte-hartzaileek martxoaren 13ra arte dute parte hartzeko aukera. Saridunen artean, 50 eta 120 euro arteko 26 bono banatuko dituzte, herriko dendetan erabiltzeko. Informazio gehiagorako: [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) edo 943 741 050.

## Bilau taldea gaur, sotoan

Bilau taldeak kontzertua emango du gaur gabean Kultur Etxeko sotoan, Sinuöse kultur taldeak antolatuta. 2017an kaleratu zuten estreinako diska sei abestirekin, barebare hasi eta apurka-apurka intentsitatea hartzen duten sei kanturekin. Folketik badutela zerbait esan daiteke, slowcorea ere ekar dezakete gogora, baina bereziki, sinpletasun eta dotorezia handiz mamitzen dituzte kantak. 23:00etan hasiko da emanaldia.

## Zigilu erakusketako partaideei esker ona

Altzolatarren Dorrexeak San Anton Egunaren harira antolatutako zigilu erakusketara zapatuan itxi zuten, eta azken egun hori baliatu zuten parte-hartzaileei esker ona adierazteko. Mauxitxa Txararangari eskaini diote aurten erakusketara Txiki Egunaren 50. urteurrenaren harira.



**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke.

☎ 612 548 108

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 632 402 661

Orduka lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Formazioa ere bai.

☎ 636 517 025

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan.

☎ 658 464 396

Persona nagusiak zaintzeko prest nago, etxeko lanegile moduan edo orduka.

☎ 632 630 483

Persona nagusiak zaintzeko prest nago. Gavez, eta ospitalean ere bai. Baserriko lanak egiteko ere prest nago. ☎ 697 666 992

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

☎ 686 077 316

Persona nagusiak zaintzeko prest nago. Laguntzaile titulua daukat, eta esperientzia handia.

☎ 943 748 899 / 685 724 861

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 159 486

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 631 931 030

Persona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak (goizez edo arratsaldean) egiteko prest orduka.

☎ 631 558 243

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 631 931 030

Urtebeteko esperientzia daukat adinekoak zaintzen. Umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko ere prest nago.

☎ 615 526 482

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientziaduna.

☎ 612 202 517

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientziaduna.

☎ 632 729 261

Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat. Orduka edo etxeko langile bezala lan egingo nuke.

☎ 632 992 730

Persona arduratsua lan bila. Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia.

☎ 636 009 215

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago.

☎ 631 489 128

Lan bila nabil. Umeak eta adinekoak zaintzen esperientzia daukat.

☎ 631 078 895

Garbiketak egin eta adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 603 580 369

**Eskaintzak**

Asteburuetan lan egiteko ile-apaintzailea behar da.

☎ 943 246 225

DBH1eko klase partikularrak emango lituzkeen pertsona baten bila nabil.

☎ 644 391 912

Unibertsitaterako hautaprobea prestatzeko irakaslea behar da.

☎ 688 851 167

Asteburuetan zerbitzari lanetan aritzeko pertsona behar da. Ezinbestekoa esperientzia izatea.

☎ 659 539 861

**GARAJEAK.....**

Garaje itxia alokatzen dut Jausoro plazan. Kotxe handia kabitzen da. Udaletxetik gertu.

☎ 672 422 237

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 637 966 749

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu.

Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak:  
18€ (alokairua).  
22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€.  
Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak:  
15€ (alokairua)  
20€ (salmenta).

Autoak saltzea: 15€.  
Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Federación Española de Administradores Locales Autónomos

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Nire komunitatean, instalazio elektriko guztia aldatuko dugu, eraikuntzak berrogei urte baino gehiago dituelako eta oso baldintza txarretan dagoelako. Bertako lokal baten jabea naiz, eta jakin nahi nuke gastu horien ordainketan parte hartu behar dudana.**

Lokal baten jabea zarenez, instalazio elektrikoa egokitzeko gastuetan laguntzeko betebeharrak argia eta erabatekoa duzu. Ulertzen dut eraikineko instalazio elektriko orokorrak ari zarela. Elementu komuna da, eta jabe guztiek hartzen dute parte gastuan, partaidetza-kuotaren edo estatutuaren ezarritako irizpideen arabera. Logikoa da, hainbeste denbora igaro ondoren, higiezin guztietan egokitzapenak egin behar izatea, egungo legegira moldatzeko eta une bakoitzean eskatutako baldintza administratiboak betetzeko, higiezin bakoitzak dituen instalazio komunak kontuan hartuta.

**ONDORIOA: Eraikinaren instalazioen eta elementu komunaren amortizazioari dagokionez, higiezin batean osorik edo zati batean berritu behar badira, eta, zehazki, instalazio elektrikoari dagokionean, eraikinaren jabe guztiek ordaindu behar dituzte gastuak.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2





Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Peru**, bihar 4 urte egingo dituzulako! Muxu handi bat etxeko guztion partez. Itzaliko ditugu kandelak.



Zorionak, **txa-peldun!** Otsailaren 2an 6 urte potolo beteko dituzu! Muxu bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Jon**, urtarrilaren 21ean 6 urte bete zenuelako. Muxu handi bat familiako guztion partez. Asko maite zaitugu.




Zorionak, **Mar-kel!** Atzo 11 urte! Primeran ospatuko dugu. Elgobarko familiakoen, bereziki, Nora, Roke eta Lukaren partez.



Zorionak, **Ga-razi**, igandean 9 urte bete zenuelako. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **June**, gaur zure urtebetetze eguna duzula. Muxu handi bat, guapa, gurasoen, neba Enaitzen eta lagunena partez.



Zorionak, **printzesa!** Igandean urtetxo bat! Zorionak etxeko, eta bereziki, Lucia eta Jonen partez.



Zorionak **Amets**, atzo 6 urte bete zenuelako.



Bederatzi urte handi iada, **Laia!!!** Muxu handi handi bana, maixia!!




Zorionak, **Bittor**, bihar 7 urte beteko dituzulako. Muxuak, familia guztiaren partetik!



2 urte handi, San Blas txiki! Zorionak, **Liher**, bi urte zoragarri ematez gatik!



Zorionak, **txa-pelduna**, 29an 9 urte bete dituzulako. Larunbatean elkartuko gara familian ospatzeko. Besarkada erraldoi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Gorane** eta **Albaro!** Bihar elkarrekin ospatuko dugu! Muxu handi bat Elgoibarko eta Bergarako familien partetik.



Pitzatuen familia handitzen, eta gu poz-positik! Zorionak, **bikote**, zoriontsu izan. Muxu asko kuadrillako lagunena partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

**aldaz**  
hortz klinikak  
RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
Toribio Etxebarria, 22  
Eibar  
677 551 850

**fisioSmás**  
Fisioterapia aurreratu eta  
Kirol Berregokitzea  
Trenbide kalea, 15  
943 740 191 / 607 953 628  
www.fisio-mas.com  
100% 07719

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192

**FUB** Fernando Urizar Barandiaran  
R.P.S.: 32/17  
Medikuntzan doktorea  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitiko  
Psikosomatika  
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)  
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)  
furizar1@yahoo.com  
615 715 404

**leku eder**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

**federópticos**  
**ikus**  
RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12  
**ainhoa**  
fisioterapia  
Jausoro plaza, 6 behe  
Elgoibar  
943 531 953  
660 565 745

## 31 BARIKUA

**22:00** Bosko gaua: Parrapas, Salda Dago eta Iker Domaikaren emanaldia. Elgoibarko Gaztetxean. Sarrera, 4 euro.

**23:00** Kontzertua: Bilau taldea. Si-nuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

## 1 ZAPATUA

**9:00** Santa eskea, herriko kale eta auzoetan. Etxegiñak antolatuta. Bolatoko parkean batuko dira.

## 4 MARTITZENA

**10:00** Mendaroko ikastolako umeen santa eskea. Ospitalean hasita.

**14:30** Santa eskea, baserriz baserri. Elgoibarko Izarrak antolatuta. Kalegoen plazan batuko dira.

**15:15** Ikastolako ikasleen Santa Agedako kalejira. Ikastolatik Kalegoen plazara. (Euria egiten badu, Ikastolan egingo dute).

## 5 EGUAZTENA

**19:30** Natura eta zientzia jardunaldiak. Iñaki Antigüedad eta Ane Zabaletak klima aldateka izango dute mintzagai, uraren ikuspegitik. Morkaikok antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldigelan.

## 6 EGUENA

**19:00** Isiltasun Eskolako meditazio saioa. Kultur Etxeko sotoan.



**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

Etorri eta bisita gaitzazu,  
kalitatezko chunak  
topatuko dituzu!

# MERKEALDIA

**%25**eko beherapena  
Quality eta Kol etxeetako  
nordikoetan

**%45**eko  
beherapena umeen izara  
eta ohe estalkietan

**%40**ko beherapena  
manta eta izaretan

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)




## Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

- \* e-postaz bidali: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)
- \* Barreneko bulegora ekarri: **Kalebarren plaza, 2**







## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
31 BARIXAKUA	1 ZAPATUA	2 DOMEKA	3 ASTELEHENA	4 MARTITZENA	5 EGUAZTENA	6 EGUENA	7 BARIXAKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Barrenetxea	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean -	Iluntzean	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984

## Zinea (Herriko Antzokian)

### 'Puñales por la espalda'

31 barixakua: 21:30  
1 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
2 domeka: 19:00  
3 astelehena: 21:30



### 'Bayala: una aventura mágica'

2 domeka: 16:30



## SIEMENS WM12T489ES ARROPA GARBIGAILUA




**529 €**

9kg • 1200 R.P.M. • A+++ saiklatze energetikoa • 5 urteko bermea •  
Prezioan barne: gailua etxera eramatea, instalatzea, gailu zaharra kentzea  
eta homologaturiko erreziklatze zentru batera eramatea.

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Produktuek agertu arte



Eire Vila

## Jone Olaizola



**A**bstrazioak ezaguna zaigunetik harago eramaten gaitu. Pentsarazi egiten digu, adimena zorrozten. Ariketa berezia jarri dit gaur kideak. Ordu laurden inguru eman dut irudian zer ikusiko. Goitik behera, be-

hetik gora eta zeharka ere begiratu diot, konzentratuta egon naiz, beste kontu guztiak burutik kenduta. Hori ere izango da artearen magia. Denbora gelditzen duela, alegia. Gaur egun, ez da erraza jendeak artelan bati begira tartetxo bat ematea irudimena lantzen, lasai, sakelako telefonoari begiratu gabe. Beraz, badu bere balioa arteak. Ez naiz ni arte abstraktuan aditua, ezjakina naizela esan behar, baina galdera tipikoa egin diot neure buruari: zer ikusten duzu argazkian? Eta barre txikiarekin batera haxe atera zait: elurra. Kar-kar, oso simplea nai-

zela pentsatu dut, beste zerbait sakonagoa edota konplexuagoa iradoki lekidake.

Baina, nik elurra besterik ez dut ikusten. Zuria, garbia, hotza, dena estaltzen duen tapaki ederra. Duela gutxi neguaren bihotzean sartu garen arren, elur gutxi ikusten da inguruetan, klima-aldaketaren ondorioak nabaritzen direlako izango da. Oraingo neguak ez dira garai batekoak, tenperaturak goraka doaz urtetik urtera, eta datozen urteetan Mediterraneoaren antz handiago hartuko dugula diote adituek. Lehengoan, batek esan zidan berak ezagutu zuela hamabost egun jarraian elurrik kendu gabe pasatako negua, elurtea, alegia, eta ez zen hain aspaldi izan. Zaila egin zitzaidan sinestea. Egia esan, gure artean badira elurrarekin lotutako euskarazko hamaika esaera, eta haxe da nire gustuko-etako bat: "Elur-melur, ez naiz zure beldur! Baditut etxean arto eta egur", ea karnabaletarako elurra etxe atarian dugun.

*"Zuria, garbia, hotza, dena estaltzen duen tapaki ederra"*



# ► Gremioen gida

## ARozTEGIAK

**Biena, S.L.**  
ARozTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)



**Ulazia**  
ARozTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albixuri industriagunea, 1-Of 1-P  
943 740 547



**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain Industriagunea, 9  
20650 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)

**IMAR**  
ARozTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheak  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriaimar@hotmail.com](mailto:carpinteriaimar@hotmail.com)



Aroztegia · Carpintería

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

## ITURGINZA

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urzuzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
[itende@pagoagasa.com](mailto:itende@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[teller@pagoagasa.com](mailto:teller@pagoagasa.com)

ELGOIBAR

FONTANERÍA

**Ibámar**  
ITURGINZA

San Roke, 10-A, beheak B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
[ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)

**ongi** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)

**SANTANA**

Igor Santana

ITURGINZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 beheak - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

**IGELTSERITZA**

**A. Garate**

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651

**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120  
[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

► Igeltseritza  
► Pintura

## ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B  
Elgoibar  
[karranza@gmail.com](mailto:karranza@gmail.com)

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999



**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Urzuzuno, 14 beheak  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
[ego.luz@hotmail.com](mailto:ego.luz@hotmail.com)

**LEIHOAK**

**LODOSO**  
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

► Leihoak  
► Iturgintza  
► Elektrizitatea

► Aroztegiak  
► Erreformak



**EUSKALDUNA**

**HERRITARRA**

**HEZKUNTZA EREDU PROPIOA**

**ERALDATZAILLEA**

Herritik sortuak eta herritarrentzat

Kooperatiba

Auzolana eta elkarlana

Euskal Curriculumra

Ikastolenekartea

Kompetentziatan oinarritutakoa

Aitzindaritza Pedagogikoa

Prestakuntza eta  
aholkularitza

H+G+B

Ikasmaterialgintza  
propioa



Bikaintasuna ikasleer

hobekuntzan

Euskal Kultura

Euskal Herritik mundura

Euskararen ardatzuriko

eleaniztasuna

Aurre-matrikulazioa:  
urtarrilaren 27tik  
otsailaren 7ra



# IKASTOLA

**etorkizunerantz** elgoibar ikastola

**hezakuntza**

**eraldatzen**



[elgoibar@elgoibarikastola.eus](mailto:elgoibar@elgoibarikastola.eus)

943 74 44 41

[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)